hiru 3

eitb

BIDAIATU GUREKIN!

Txirrista

LEHEN IRAKURLEENTZAKO IPUINAK

Jakin ai daiteke nolakoa den zerbait probatu gabe?

Zer izan nahi duzu handitan?

Zer usain dauka haur jaio berri batek?

ibaizabal
www.ibaizabal.com

AURKIBIDEA

Hiru3 Jaia 4. orr

Urteko ekintzak 8. orr

Aisialdia 12. orr

Olentzero 16. orr

Hiru3 aldizkaria
EiTB
Basurtuko kaputxinoak, 2
48013 - Bilbo
94 656 30 00

Hiru3 komunitatea
94 656 31 22
hiru3@eitb.eus
www.eitb.eus/hiru3/

Edizio arduraduna:
EiTB

Kolaboratzailea:
Ibaizabal argitaletxea

Diseinua, ilustrazioa eta digitalizazioa:
eitb.eus

Kaixo, laguntxo:

Laster bukatuko da 2014. urtea, eta denok espero dugun egun handia iritsiko da: Olentzeroren etorrera! Ziur zintzoak izan zaretela eta opariak jasoko dituzuela; dena den, aurretik, eskutitza idatzi beharko duzue. Lana erraztearren, Hiru3ren webgunean duzue egiteko aukera. Bisitatu **Gabonetako ataria**, eta ez ahaztu Olentzerori idazteaz edota, gutxienez, gutuna prestatzeaz eta EiTBra ekartzeaz, Bilboko egoitzara etorriko baita abenduaren 23an, 12:00etan.

Gainera, Gabonetan, oporretan egongo zaretenean, zinemaz gozatzeko aukera izango duzue EiTBri eta Zineuskadiri esker. Zinema-emanaldi batzuk antolatu ditugu abenduaren 22tik aurrera, eta, besteak beste, Olentzeroren filma eta Zipi eta Zape anaien abenturak ikusteko parada izango duzue.

Bitartean, ondo pasa esku artean duzuen aldizkaria irakurtzen eta urteko ekimenak gogoratzen: Bokatonada, Hiru3 Jaia, Radio Vitoriaren 80. urtemuga, argazki-lehiaketak, urtebetetze-opariak... Laster arte!

HIRU3 JAIA 2014

Urtero egin ohi duen legez, Hiru3 haurren klubak bere **jaia** antolatu zuen. 2014ko hitzordua irailaren 21ean izan zen, ikasturte berriaren hasierarekin batera, EiTBren Bilboko egoitzan. Goiz guztian zehar ehunka ume hurbildu zen festara, eta prestatuta zeuden hainbat jardueratan parte hartzeko aukera izan zuten.

Eguraldia aurpegi politarekin esnatu zela aprobetxatuta, haurretako zenbaitek **puzgarrietan saltoka** ibiltzea erabaki zuen; ausartago agertu zirenak, bitartean, **kart bat gidatzera joan ziren**. Margoekin jolasteko parada ere bazegoen, baita txikienei aurpegia pintatzeko txokoa ere. Hori bai, ia guztiek aprobetxatu zuten **Shin Chan**, **Doraemon** eta **Nobitarekin batera argazkiak** ateratzeko aukera paregabea.

Ez ziren gutxi izan EiTB barrutik ezagutzera animatu ziren familiak, etengabe martxan ibili ziren **bisita gidatuen** bidez. **Irrati-esatari lanak** egitera animatu zenik ere egon zen, Oihan Vega **Gaztea**ko partaidearen laguntzarekin.

Horrez gain, **Tor magoaren** emanaldiak ikusle anitz batu zituen Multibox gunean. Txikienek magia-ikuskizunean esku hartu zuten, eurak izanik bertako protagonista nagusiak. **Bideojokoen txokoak** ere arrakasta handia eskuratu zuen, magia-emanaldiaren aurretik zein ondoren, bertara urreratu baitzen norberaren trebeziak erakusteko asmoa zuen oro. Galdutako indarrak berreskuratzeko, **oilasko errea dastatu** ahal izan zen. Gainera, oilaskoa saltzetik eskuratutako dirua Cáritas elkarteari bideratu zitzaion; beraz, gosea kentzearekin batera ekintza on bat egin zitekeen.

Esteka honetan ikus ditzakezue **Hiru3 Jaian** atera genituen argazkiak. Gainera, gogoratu jaiari buruzko **programa berezia** emititu genuela etb3 katean. Programa hori ikusgai daukazue **eitb.eus** weguneko atalean.

JUSTIZIAREN ALDE LANEAN

Pertsonei (etxerik gabekoei, adikzioak dituztenei, adinekoei, adingabeei, langabetuei, hegoaldeko herrialdeetakoei...) eta familiei **bizibaldintzak hobetzeko laguntza** eskaintzen diegu **boluntariotza**, gizarte ekintza eredu **integrala, sentsibilizazioa** eta komunitatea **animatzearen** bitartez. Hori guztia, **gizarteratu** eta **lan-munduan txertatu** daitezen lortzera bidean.

Babesa eskainita zeuk ere **laguntzen** duzu...

Ekarpenak:

BBK: ES85 2095 0119 96 3800121037
Caja Laboral: ES25 3035 0134 48 1340555555
BBVA: ES96 0182 1290 30 0000295556
La Caixa: ES93 2100 0732 21 0200220296

Cáritas
Bizkaia
Erribera 8 · 48005 Bilbao
Tel. 94 402 00 99
www.caritasbi.org

STAND BY ME
DORAEMON

Gabon hauetan, guztion gozamenerako, Doraemon katu kosmikoaren eta Nobita bere lagunaren film berria (***Stand by Me Doraemon***) estreinatuko da Euskadiko zinema-aretoetan. Estreinaldi mundial hori abenduaren 19an izango da, hain justu ere. Dena den, Hiru3ko komunitatea osatzen duzuenok aurrestreinaldira joateko parada aparta izango duzue abenduaren 13an. Ekitaldi hori EiTBren Bilboko egoitzako Multibox aretoan egingo da, eta bertara joateko gonbidapenak eskuratu nahi izanez gero, **Hiru3 webgunera jo** beharko duzue abenduaren hasieran, eta bertan aurkituko dituzue zozketan parte hartzeko jarraitu beharreko argibideak.

URTEKO EKINTZAK

Alai eta irribarretsu eman genion urteari hasiera, izan ere, **inauterietako argazkien lehiaketa** antolatu genuen Hiru3ko kideen artean. **Pila bat argazki** jaso genituen, denak ederrak oso, eta **Ximun Ensunza Madariagak** irabazi zuen lehiaketa. **Eroski Bidaiak** agentziari esker asteburu bateko egonaldi ederraz gozatzeko aukera izan du guraso eta anaiarekin batera.

Udan, berriz, **oporretako argazkien lehiaketa** jarri genuen martxan, eta **oso argazki dibertigarriak** hartu genituen, ikastetxera joan barik ederto pasatzen duzuenaren seinale. **Markel eta Alazne Echaide Rodriguez neba-arrebak** suertatu ziren irabazle eta EiTBren produktuak eta liburu bana jaso zuten opari, **Ibaizabal** argitaletxearen eskutik.

Pazkoako astean, sukaldari bihurtu genituen 500 ume baino gehiago Bilboko Plaza Barrian. Gaztetxoek hiru ogitarteko osasuntsu prestatu zituzten **David de Jorgerekin eta Aimar San Miguel** "Masterchef Junior" saioko lehiakidearekin **Bokatonada** ekimenean. Lehenengoa, Philadelphia krema urdaiazpiko egosiarekin eta Pamplona txorizoarekin; bigarrena, Nocilla, platano-xerrekin, eta hirugarrena, patea mortadela olibadunarekin. Gaur egun modan dauden beste merienda batzuen aurrean, betiko merienda sustatzea zuen helburu, eta **arrakasta izugarria** lortu zuen, **argazkietan ikus dezakezuenez**.

Udazkena gogotsu hasi dugu. Dakizuen bezala, irailaren 21ean, **Hiru3 Jaia** ospatu genuen EiTBren Bilboko egoitzan, eta handik eta egun batzuetara, urriaren 4an, Radio Vitoriako lankideekin bat egin genuen **80. urtemugako ospakizunetan**. Gainera, Halloween zela-eta, azaroaren 1ean, ***Dixie eta matxinada zonbia*** filmaren aurrestreinaldia ikusteko sarrerak zozkatu genituen Hiru3ko kideen artean.

Era berean, urtebetetze opari izan duzue **PortAventura** parkerako sarrera **"la Caixa"**-ren eskutik, eta liburuak zozketatu ditugu hilero urteak bete izan dituzuenen artean, **Ibaizabal**i esker.
Urtea oraindik ez da bukatu, eta sorpresa gehiago ditugu zuentzat. Adi egon!

TEKNOLOGIA

Euskaltelek urte osoan zehar martxan jartzen dituen ekimenetan beti ditu gogoan gazteak, aro digitalean hazi baitira eta iritzi-iturri garrantzitsua osatzen baitute.

Euskaltelek zuzenean babesletzaren bidez nahiz Euskaltel Fundazioaren bitartez antolatzen dituen ekitaldien artean, badira batzuk Euskadiko bezero gazteenen nahiei erantzunez antolatzen direnak.

Hala, Euskaltelek urteko hamabi hilabeteetan ematen dio indarra Interneti buruzko interes biziena dutenei zein Euskal Encounterren, Gipuzkoa Encounterren eta antzeko topaketetan jakintza zabaltzeko gogo handiena dutenei. Aurten, gainera, Araba Encounter ere egingo da, abenduaren 6tik 8ra. Hartara, osatu egiten da Espainian jarraitzaile gehien dituzten "party" informatikoen mapa.

Euskaltelek badu beste hitzordu garrantzitsu bat teknologiekin: sare sozialetako segurtasunari buruzko programa bat egiten du, ikastetxeei zuzendua, helburu hezitzaile nabarmena duena baita dibulgaziozkoa ere.

Azkenik, Euskaltel, Innobasquerekin batera, Euskadiko First Lego League antolatzen ari da, zientziarako bokazioak bultzatzeko, proiektu teknologikoak egin ditzaten gazteei adorea emateko eta zenbait balio (lankidetza, berrikuntza, ahalegina, gizarteratzeko laguntza, etab.) sustatzeko asmoz.

"la Caixa"

PortAventura®

EiTBk eta "la Caixa"-k elkarren artean daukaten hitzarmenari esker, haurrek abantailak dituzte: esaterako, PortAventura Parkerako sarrera bat jaso ohi dute urtebetetze-opari gisa, aurreko urteetan bezala.

Kupoi bakarra truka daiteke sarrera eta pertsona bakoitzeko. Kupoia ezingo da diruaren truke aldatu. Sustapena egiaztatzeko, ezinbestekoa da Izar Libreta edo Megalibreta aurkeztea. Informazio gehiago: **www.portaventura.com**

Gogoratu honako hauek direla jarraitu beharreko urratsak:

1.- Zorion-gutuna hartu, eta gertuen duzun "la Caixa"-ren bulegora joan.
2.- "la Caixa"-ren bulegoan PortAventura parkerako sarrera bat emango dizute zorion-gutuna eta Izar Libreta aurkeztuta. Libretarik ez baduzu, bertan ireki zenezake 5 euroko gutxieneko diru-sarrera eginda.
3.- Behin PortAventura parkeko leihatilan egonda, aurkeztu "la Caixa"-n eman dizuten sarrera eta Izar Libreta, eta trukatu baliodun sarrera batengatik.

Kupoirik ez baduzue jaso, eta joateko asmorik izateko-tan, jarri gurekin harremanetan: hiru3@eitb.eus

Oharra: PortAventura Parkeko leihatiletan trukatu behar da txartela. Umeen sarrera doan lortzeko, nagusien "egun bateko sarrera" erosi beharko da. Kupoiak 2014-04-11tik 2015-01-06ra balio du. Ez da apurtutako kupoirik onartuko. Eskaintza hau ezin dakio beste eskaintza bati gehitu.

AURKITU 7 ALDEAK

IRAKURKETA TXOKOA

BEEELDUR NAIZ



Egileak: Leticia Garcés eta Asun Egurza
Marrazkilaria: Asun Egurza
Itzulpena: Eider Juanena eta Ainara Mendoza
Orrialdeak: 24
Adina: 2 urtetik aurrera

Nola sentitzen gara beldur garenean?

ITSASOA EDAN DUT

Egilea: Leire Bilbao
Marrazkilaria: Enrique Morente
Orrialdeak: 24
Adina: 6 urtetik aurrera

Maddik ez zekien zer aurkituko zuen itsas hondoan, beldur apur bat ere ematen zion...
Jakin al daiteke nolakoa den zerbait probatu gabe?

ZORIONAK, SATOR JAUNA!



Egilea: Seve Calleja
Marrazkilaria: Carmen Aguirrezabal
Itzultzailea: Xabier Monasterio
Orrialdeak: 88
Adina: 8 urtetik aurrera

Sator Jaunaren urtebetetzea da eta haren iloba sator-zulora bidean doa zoriontzeko asmoz. Bidean, basoan, ezaugarri ezberdinetako animalia ugari elkartu zaio. Horrek ez die eragotzi elkarrekin joatea eta, azkenean, jai zoragarria ospatzea.

BIZIKLETA LAPURTU DIDATE!

Egilea: Aritz Mutiozabal
Marrazkilaria: Maite Mutuberria
Orrialdeak: 72
Adina: 10 urtetik aurrera

Aneren bizikleta desagertu egin da. Norbaitek lapurtu dio. Batean zein bestean bilatzen aritu ondoren, Gobernuz Kanpoko Erakunde baten eskuetan dagoela jabetuko da. Baina beranduegi izango da. Anek bizikleta galdu, baina lagun berri bat irabaziko du.

betidanik HAUR eta GAZTE LITERATURAN
www.ibaizabal.com
murgilduta
ibaizabal

EUSKARA

#poziktibity

Zer da POZIKTIBITY? **POZIKTIBITY** euskararen erabilpena bultzatzeko sortutako kontzeptua da. Betiere, euskaraz aritzeko nahia sustatzeko jaiotako proiektua. Gure hizkuntza, azkenean hizkuntza bat besterik ez da, baina gurea denez, komunikatzeko garaian, horretan egitea positiboa dela transmititu nahi du POZIKTIBITYk.

Pertsona ezagunek hartu dute parte hainbat gairi buruz hitz egiten. Batetik, Aritz Aduriz, Imanol Agirretxe, Aritz Aranburu eta Hodei Collazo kirolari sonatuak, eta, bestetik, Anne Igartiburu eta Reyes Prados aurkezle ospetsuak eta Idoia Gurrutxaga eta Juan Calparsoro. Zerrenda handitzen joango da hilabeteotan.

Denak dira pertsona erakargarriak, eta beraiek ere euskaraz aritu nahi izaten dutela erakutsi dugu, beren elkarrizketen bidez. Hori guztia, gainera, tonu hurbil eta entretenigarrian, euskaraz hitz egitea dibertigarria delako.



AURREZTU
MUGIKORREKO FAMILY TARIFAREKIN

FAMMILY

NAHI ADINA DEI + 1GB LINEA BAKOITZEAN

1. LINEA 23'9€ / HIL BEZa BARNE

LINEA GEHIGARRI BAKOITZA 6 € / HIL BEZa BARNE

Eta, aurreztuko duzunarekin,
eman gutizia bat zure familiari

PS4™
+ Driveclub

16'9€ / HIL
BEZa BARNE

euskaltel
zuretzat

Kontratatu euskaltel.com-en | Dendetan | 1717an

Estatuko deiak eta trafikoa. Erabilera egokia egiteko politika dela eta, bezero bakoitzak gehienez ere 5 linea izan ditzake Family tarifan, eta linea bakoitzeko 7.000 minutu Bi hilabete baino gehiagoko antzinatasuna duten Euskaltelen bezeroentzako eskaintza. 24 hilabete irauteko konpromisoa. Informazio gehiago, hemen: www.euskaltel.com

Babesle teknologikoa:

zinegabonak

Urtea ezin hobeto bukatzeko, EiTBk eta Zineuskadik Zinegabonak ekimena jarriko dute martxan, umeek zinemaz goza dezaten euskaraz. EiTBren Bilboko egoitzan lau film ikusi ahal izango dira, doan, abenduaren 22tik 26ra bitartean, 25ean izan ezik. Astelehenean, asteazkenean eta ostiralean goizeko 11:00etan izango da emanaldia; ordea, 23an, arratsaldez eskainiko da pelikula, 16:30etik aurrera; goizean, Olentzero izango delako EiTBn.

Gainera, asteburu bitan, abenduaren 27an eta 28an, eta urtarrilaren 3an eta 4an, Euskal Herriko zenbait zinema-aretotan euskarazko filmak izango dituzte ikusgai umeek, euro baten truke.

Film horietarako zein EiTBn izango diren pelikuletarako gonbidapenak lortzeko, Hiru3ren webgunean eman behar duzue izena abenduaren hasieran. Bertan izango duzue informazio guztia, baita zozketan parte hartzeko jarraitu beharreko argibideak ere.

eitb · EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO · EUSKADIKO FILMATEGIA FILMOTECA VASCA · ZINEUSKADI